

# I+b-ren etorkizuneko beharrak “Elikadura 2030”erako trantsizioan

**Aintzat hartuta Horizon Europe programa berria, Europako Batzordeak 60 aditu eta arduradun politiko bildu ditu, elikadura jasangarri, osasungarri, seguru eta inklusiboko sistemetarako trantsizioan ikerketa eta berrikuntza arloak (I+b) dituen behar zehatzak identifikatzeko.**

Elikaduraren balio-kateko alde interesdunei galdetegi bat egin zitzairen, Food 2030 ekimenean garatzen ari diren “ekintzarako bide”etan oinarrituta. Galdetegi horren emaitzak adituen eztabaidan erabili ziren, benetako inpaktua sortzeko gaitasuna duten I+b beharrak identifikatzeko eta lehenesteko.

## Food 2030 Pathways

Honako hauek dira Food 2030en ekintzarako hamar bideak:

1. **Elikadura-sistemen gobernantza eta aldaketa.**
2. **Hiriko elikadura-sistemaren eraldaketa.**
3. **Ozeanoetako ur gezako baliabideetako elikagaiak.**
4. **Proteina alternatiboak eta dietaren aldaketa.**
5. **Elikagaien xahuketaren murrizketa, erdira.**
6. **Mikrobiomen mundua.**
7. **Nutrizio osasungarria, jasangarria eta pertsonalizatua.**
8. **Etorkizuneko elikagaien segurtasunerako sistemak.**
9. **Elikadura-sistemak Afrikan.**
10. **Elikadura sistemak eta datuak.**

Bide horiek ebidentzian oinarritutako logika ematen dute etorkizuneko elikadura-sistemetarako, Europako funtsen I+b eta inbertsio-ekintzaren bidez.

## Adituen azterketa

Bide bakoitzean, adituek azterketa hirukoitza egin zuten:

1. Deskripzioa eta “ko-onurak” adituen ikuspegi orokor batekin, politika komunen helburuek izan ditzaketen inpaktu positiboak buruz.
2. Bide bakoitzean proposatutako I+b ekintzen garrantziaren sailkapena.
3. I+b lehenetasunezko ekintzen definizio kontzeptuala.

Txostena: FOOD 2030 Pathways (<https://fit4food2030.eu/wp-content/uploads/2020/04/20200424-Food-2030-Pathways-Workshop-Report.pdf>)

Galdetegia: FOOD 2030 Pathways (<https://fit4food2030.eu/wp-content/uploads/2020/04/Food-2030-Pathways-Workshop-Report-Annex-2-Survey-questionnaire-002.pdf>)

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)